

Nabarmentzekoak...

ENPLEGU PLANA

▶ PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIA LORTZEKO MODULUAK:

- Lorategien matentzea
- Laguntza instituzioetan

▶ PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRI OSOAK

- Merkataritzako laguntzailea
- Biltegiko laguntzailea

▶ LAN AURREKO TAILERRAK

▶ INFORMACIÓN PLAN INTERESA

HAURRAK ETA FAMILIA:

▶ INAUTERITAKO TAILERRA: BI AUKERA: 5 EGUNEOA EDO 3KOA

▶ FAMILI TAILERRA: "HAURRENTZAKO YOGA FAMILIAN"

▶ BULARRA EMATEKO TAILERRA

▶ LUDOTXIKI: DOAKO PLAZAK, LEKU BERRIA ETA JARDUERAK

ADINEKO PERTSONAK

▶ FORMAZIOA: "INTERNET BIDEZ EROSTEN ETA FAMILIAREKIN KONEKTATZEN IKASTEKO"

▶ MASKARILEN BANAKETA

BALIABIDE ETA ZERBITZUEN GIDA



MUTILOA PLAZA Z/G – MUTILOA
ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
9:00ETATIK 14:00ETARA
TEL: 948151382

Udalak jarduera eta gune seguruak sustatu ditu Aranguren Ibarreko haurrentzat



Egungo egoera sekulako erronka izaten ari da haurrak dituzten familia guztientzat, osasun larrialdira eta egoerak ekarritako betebeharrak egokitu behar izan dutelako.

Pandemia honek eta haren ondorioek gehien ukitutako biztanle taldeetako bat Aranguren Ibarreko haurrak dira. Hala ere, haiek joan dira egokitzen hobekien egoerara, bai eta erarik naturalenean ere, ohitura berriak hartuta eta beren errutinako aldaketa ongi onartuta.

Neskato-mutikoez ederki erakutsi digute nola jokatu arduraz eta nola egin egokitzapena, eta era berean, guk uste baino erresilientzia handiagoa erakutsi dute. Ezin izan dute etxetik normaltasunez atera, ezta adin horretan ohikoak izaten diren jarduera horiek guztiak egin ere, ez ikaskideekin, ez senideekin, ez lagunekin. Halaber, urrutitik egiten ikasi behar izan dute bai beren etxeko lanak bai hezkuntza-jarduerak, eta musukoak erabiltzen... Erronka handiak izan dira, eta ongi eta jarrera positiboa erakutsita gaindi-tzen joan behar izan dira.

Aranguren Ibarreko Udalak, Gizarte Zerbitzuen alorraren bidez, jakinik zenbat familia umedun bizi diren Ibarrean, are lan handiagoa egin du hain hila-bete korapilatsu hauetan, haurrendako eta haien familiendako ohiko jarduerak egokituta eta berriak sortuta, haien beharrei erantzuten jarraitze aldera.

Horretarako, eta uneoro, bereziki zaindu dugu jarduera, zerbitzu, kanpaldi eta tailerretarako itzulera, gune seguruak eskainita. Izan ere, osasun agintariak ezarritako segurtasun eta higiene arloko neurri guztiak hartu dira, gomendio eta arau guztiak beteta.

Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik, gure lana areagotuko dugu, betiere Nafarroako Gobernuak eta osasun agintariak ezarritako mugen barnean, Ibarreko familiei gure zerbitzu eta baliabideak eskaintzen jarraitu ahal izateko, ahal den neurrian familia eta lana bateragarri egiten laguntze aldera, kontziliazioa zaila izaten baita beti, eta zer esanik ez, COVID-19ak eragindako ataka honetan. Era berean, familien seme-alaben hezkuntzan laguntzeko, bai eta haien garapen eta bilakaera onean laguntzeko ere.

Lerro hauek baliatu nahi ditugu Aranguren Ibarreko haur guztiak zorientzeko, jokamolde eredugarria erakutsi baitute murrizketak etorri zaizkigun hain hilabete gogor hauetan. Neskato-mutikoez, izan ere, eredugarri jokatu dute; irakaspenez heldu guztientzat.

ENPLEGU PLANA

Profesionaltasun ziurtagirien moduluak:

Ikastaro hauek Aranguren Ibarrean errolatutako jendearentzat dira; bereziki, langabezian daudenentzat eta, Aranguren Ibarreko **enplegu-poltsan alta emanda egon eta bertan dirautenentzat**.

Diruz lagundua dago profesionaltasun ziurtagirien eta ziurtagiri osoen moduletara joatea; 2 euro, modulura joandako egun bakoitzeko. Astean 13 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonak, moduletako bat egin nahi badute, aukera izanen dute, baina horrelako dirulaguntzarik gabe.

LORATEGIAK, PARKEAK ETA BERDEGUNEAK JARRI ETA MANTENTZEKO OINARRIZKO LANAK

(160 ordu)



Prestakuntza horren bidez, bi modulu eskuratzen ahalko dira, biak ere beharrezkoak **1. mailako profesionaltasun ziurtagiria eskuratzeko: mintegi, lorategi eta lorezaintza-zentroetan jarduera lagungarriak, kasuan kasuko probak gainditu ondoren.**

Hona hemen zer modulu emanen diren:

- Lorategiak, parkeak eta berdeguneak jartzeko oinarritzko lanak (90 ordu). MF0521-1.
- Lorategiak, parkeak eta berdeguneak mantentzeko oinarritzko lanak (70 ordu). MF0522-1.

Lehentasuna izanen dute aipatu ziurtagiriko moduluren bat gainditua dutenek.

Baldintzak: Gaztelaniaz jakitea (mintzatu, irakurri eta idatzi).

Datak: Apirilaren 12tik maiatzaren 25era.

Ordutegia: 9:15etik 14:30era

Epeak: gehienez, 12 lagun.

Non: Ilundain Fundazioaren instalazioak (Ilundain).

LAGUNTZA PSIKOSOZIALA ETA HARREMANETAKO ETA KOMUNIKAZIOKO ARRETA ERAKUNDEETAN

(130 ordu)



Ikastaro honen bidez **1019 prestakuntza modulu** eskuratzen ahalko da, beharrezkoa baita **2. mailako profesional ziurtagiri hau eskuratzeko: Mendekotasuna dutenei arreta soziosanitaria**

ematea gizarte erakundeetan, kasuan kasuko probak gainditu ondoren. Lehentasuna izanen dute Arreta soziosanitaria erakundeetan izenburuko CP2ri dagokion moduletako bat gainditua dutenek.

Hori egin nahi dutenek baldintza **hautetako bat bete beharko dute:**

- Graduatu titulua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- 2. mailako profesionaltasun ziurtagiria.
- Familia eta lanbide arlo bereko 1. mailako profesionaltasun ziurtagiria.
- Gradu ertaineko prestakuntza zikloetan sartzeko baldintza akademikoa betetzea edo hezkuntza-administrazioek araututako kasuan kasuko sarrera probak gaindituak izatea.
- 25 urtetik eta/edo 45 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba gainditua izatea.
- Beharrezkoak diren funtsezko gaitasunak izatea.

Datak: Martxoaren 15etik maiatzaren 10era.

Ordutegia: 09:15etik 13:30era.

Non: ADACEN.

Lekuak: gehienez, 12 lagun.

Profesionaltasun ziurtagiri osoak:

CP1: MERKATARITZA JARDUERA LAGUNGARRIAK

(230 ordu teoriko eta 40 ordu praktiko)



Prestakuntza honen bidez, merkataritza jarduera lagungarrien espezialitatean eman nahi zaie gaikuntza pertsonari, hau da, salmenta gunean birjartze eta egokitzapen

jarduerak egiteko, hurbiltasuneko banaketa egiteko, bezeroari arreta eta informazioa emateko, etab.

Lehentasuna izanen dute aipatu ziurtagiriko moduluren bat gainditua dutenek.

Baldintzak: gaztelaniaz jakitea (mintzatu, irakurri eta idatzi).

TEORIA:

Datak: Otsailaren 26tik maiatzaren 11ra.

Ordutegia: 09:15etik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

Non: Rodoia 2000 SLko ikasgela. Iwer Pamplona eraikina. (Marcelo Celayeta etorbidea, 5).

Lekuak: Gehienez, 15 lagun.

PRAKTIKAK: (Modulu teorikoak gainditzen dituztenek bakarrik egingen dituzte).

Datak: maiatzaren 12tik 20ra.

Ordutegia: Txandakakoa, 5 ordu egunean, astelehenetik larunbatera (ordu disponibilitatea behar da).

Non: Eroskiko zentroak (Joan-etorria egiteko disponibilitatea behar da).

CP1: BILTEGIKO LAN LAGUNGARRIAK

(170 ordu teoriko eta 40 ordu praktiko)

Prestakuntza honen bidez gaikuntza eman nahi zaie pertsonari biltegiako lan lagungarriak espezialitatean, hainbat lan egiteko: zamak kargatu eta deskargatzeko lanen harrera, deskontsolidazioa, oinarritzko kokapena, prestaketa eta bidalketa, koordinaziopean edo talde lanean, arduradun baten begiradapean, eta prozedura zein ekipo egokiak aplikatuta, produktibitate baldintzetan, eta segurtasun, osasun eta arriskuen prebentzio araudia errespetatuta.

Lehentasuna izanen dute aipatu ziurtagiriko moduluren bat gainditua dutenek.

Baldintzak: gaztelaniaz jakitea (mintzatu, irakurri eta idatzi). B1 gidabaimena.

TEORIA:

Datak: martxoaren 24tik maiatzaren 26ra.

Ordutegia: 09:15etik 13:30era, astelehenetik ostiralera (martxoak 25 eta 26, 14:30era arte).

Non: Rodoia 2000 SLko ikasgela. Iwer Pamplona eraikina (Marcelo Celayeta etorbidea, 5).

Lekuak: Gehienez, 15 lagun.

PRAKTIKAK: (modulu teorikoak gainditzen dituztenek bakarrik egingen dituzte).

Datak: maiatzaren 27tik aitzina.

Ordutegia eta non: Enpresak zehaztuko du (ordu disponibilitatea eta joan-etorria egitekoa beharko da).

Lan-aurreko tailerrak:

Tailerrak diruz lagunduak egonen dira; 5 euro bertaratze-ordu bakoitzeko. Lehentasuna izanen dute Biltegiako lan lagungarriak (CP1) prestakuntza egina dutenek. Baldintzak: gaztelaniaz jakitea (mintzatu, irakurri eta idatzi).

PLATAFORMA JASOTZAILEKO OPERADOREA

(8 ordu)

Datak: maiatzak 27 eta 28.

Ordutegia: 09:30etik 13:30era.

Non: Rodoia 2000 SLko ikasgela. Iwer Pamplona eraikina. (Marcelo Celayeta etorbidea, 5).

Lekuak: Gehienez, 15 lagun.

ZUBI-GARABIKO OPERADOREA

(8 ordu)

Datak: Maiatzak 1 eta ekainak 1.

Ordutegia: 09:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

Non: Rodoia 2000 SLko ikasgela. Iwer Pamplona eraikina. (Marcelo Celayeta etorbidea, 5).

Lekuak: Gehienez, 15 lagun.

▶ LAN AURREKO TAILERRETAN ETA PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIETAN IZENA EMATEKO DATAK: OTSAILAK 15 ETA 16. 948 012 012 TELEFONORA DEITUZ. ORDUTEGIA: 08:00ETATIK 18:00ETARA

IN.TE.RE.SA PLANA

Aranguren Ibarreko Udalak udalerrian errolatuta eta langabezian dauden pertsonen lanpostu bat lortzea helburu duen Enplegu Plana garatzen jarraitzen du. Hori dela eta, beste urte batez, 2021. urtean zehar ere enplegua, auto-enplegua eta prestakuntza sustatzeko kontratazioarako diru-laguntzen deialdiak onetsi dira.

Deialdi horiek Aranguren Ibarreko Udalaren web orrian daude ikusgai: www.aranguren.es

Enplegua sustatzeko 2021 deialdia: kontratazioarako diru-laguntzak

HELBURUA: Kontratazioa diruz-lagundu: Aranguren Ibarreko udalean errolatuta dauden pertsona langabetuena.

DIRU-LAGUNTZEN ONURADUNAK: ENPRESAK: udalerrian errolatutako langabetutako pertsonak kontratatzen dituzten eta oinarrian ezartzen diren ezaugarri eta baldintzak betetzen dituztenak.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTRATUAK:

KONTRATU MOTA	DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
Iraupen mugagabeko kontratuak.	6.000 € - 9.000 € (*)
6 eta 12 hilabeteko iraupeneko kontratuak.	2.000 € - 3.000 € (*) 6 hilabetetarako kontratuetan. 4.000 € - 6.000 € (*) 12 hilabetetarako kontratuetan. (Kontratu horiek mugagabeak bihurtzekotan, 6.000 € - 9.000 € arterainoko ezberdintasuna emango da laguntza gisa).
Ezgaitasunen bat duten pertsonen enplegua sustatzeko behin-behineko kontratuak.	3.500 €
Formazioarako edo praktiketako kontratuak.	2.000 €

OHARRA:

- (*) Kontratatutako pertsona 45 urtetik gorakoa bada.
- Lanaldi laburrerako egiten diren kontratuak, gutxienez lanaldi osoan dabilen langile baten %50ekoa denean, eta aldizkako lan-kontratuak, lehen aipatutako pizgarriak lan orduen arabera proportzionalki banatuko dira.
- Enpresak IGE prozedura oinarri hartuta berdintasunerako plan bat ezarria badu, laguntzak 300 euro gehiago izanen ditu.

Autoenplegua sustatzeko 2021ko dirulaguntza deialdia

HELBURUA: Auto-enpleguaren bidezko ekimenak sustatzeko pizgarriak ezarri, inizatiba berritzaile eta era guztietakoak lagunduz.

LAGUNTZEN ONURADUNAK: Aranguren Ibarrean errolaturik egon eta ondorengo egoeraren batean egonik:

- Langabezian
- Besteren konturako kontratu partziala
- Besteren kontura jardunaldi osoz kontratua izan eta ERTE egoeran dagoena, osoa edo partziala.

Autonomo gisa altan ematen duten pertsonak (betiere diru-laguntzak norbanako gisa eskatzen dituztenean).

DIRU-LAGUNTZEN KOPURUA: Deialdi honen esleipendun bakoitzari 4.000,00 €-ko (**) diru-laguntza emango zaio.

OHARRA:

- (**) Aurreko paragrafoa b eta c idatz-zatietan aipatzen diren egoeretan, laguntza lanaldi osoa betetzeko falta den ehunekoaren arabera izango da, edo, ERTE egoeran badago, ERTE egoeran dagoen lanaldiaren portzentajearen arabera.
- Ondorengo egoeraren batean dauden pertsonen kasuan, laguntza 300 € handiagoa izango da:
 - 45 urtetik gorakoa.
 - %33tik gorako ezgaitasuna duen pertsona.
 - Genero indarkeriaren biktima izan den emakumea.

Gizarte eta lanerako prestakuntza eta formazio pertsonala sustatzeko diru-laguntza deialdia

HELBURUA: ENPRESA, ELKARTE, FUNDAZIO edo ERAKUNDEentzako diru-laguntzak. Betiere, parte hartzaileen gizarte eta lan munduratzeko helburuarekin formazio egitararen bat garatzen baldin badute.

Langabe dauden NORBANAKOentzako diru-laguntzak. Behin-behineko laguntza ekonomikoa emango zaie gizarteratzeko eta lan-munduratzeko formazio programetan parte hartzen duten pertsonen. Betiere, programa hori Aranguren Ibarreko Udalak antolatuta, lagundu edo aitortutako esku-hartzeko plan batetik eratorria bada.

LAGUNTZEN ONURADUNAK: ENPRESA, ELKARTE, FUNDAZIO edo ERAKUNDEAK beren forma juridikoa dena delakoa izanda ere.

Aranguren Ibarreko udalerrian errolatuta eta langabezian dauden **PERTSONAK:**

- Lanareko tailerretan parte hartuz gero (5 €/ bertaratutako orduko).
- Profesionaltasun Ziurtagirien kasuan, osorik edo moduluka (2€ bertaratutako egun bakoitzeko).

EDOZEIN ARGIBIDE

Aranguren Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua (Aranguren Ibarreko Udaleko 1. Solairua)
Mutiloa plaza z/g 31192 (Mutiloa - Aranguren Ibarra) • Telefonoa: 948 151 382
Ordutegia: asteleheneretik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara

INAUTERIETAKO TAILERRA

(2009 eta 2017 bitartean, biak barne, jaiotakoentzako)

EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	PREZIOA	IZEN EMATEAK ETA ORDAINKETA
1. Aukera: Otsailaren 15etik 19ra (5 egun: asteleheneretik ostiralera)	9:00etatik 14:00etara	IRULEGI IKASTETXE PUBLIKO BERRIA (Mutiloa)	ERROLDATUAK: 1. Aukera: 30 € haurra 2. Aukera: 18 € haurra	Otsailak 9, asteartea, eta 10, asteazkena, errolatuentzat Otsailak 11, osteguna, errolatu gabek (Beti ere plaza guztiak errolatutako haurrekin bete ez badira)
2. Aukera: Otsailak 15, 16 eta 17 (3 egun: astelehen, astearte eta asteazkena)			ERROLDATU GABEAK: 1. Aukera: 60 € haurra 2. Aukera: 36 € haurra **Tailerlean izena ematen duen 3. seme-alabatik aurrera, %25eko beherapena**	(012 telefonora deituaz 8:00etatik 18:00etara)

ONARTUTAKOEN ORDAINKETA: IZENA EMATEKO MOMENTUAN, VISA TXARTELAREN BIDEZ, OTSAILAREN 9 ETA 10EAN ERROLDATUEK ETA OTSAILAREN 11AN ERROLDATU GABEEK



JARDUERA:

Aste honetan zehar inauterietan gozatuko dugu. Egunero jarduera ezberdin eta oso dibertigarriak egingo ditugu. Jolasean eta mozorro ezberdinak eginez gozatuko dugu: maskarak... Nekazal giroko inauterietara hurbildu eta pertsonai ezberdinak ezagutuko ditugu. Osagarri pilarekin photocalla ere egingo dugu, ginkana eta ongi pasatzeko jolasak..

Animatu parte hartzera!! Zure zain gaituzu!!

INAUTERIETAKO TAILERRAREN GARAPENA EGUNGO OSASUN-GOMENDIOEN MENDE EGONGO DA, ETA ARAUDIAREN ARABERA ADIERAZITAKO HIGIENE- ETA SEGURTASUN-NEURRI GUZTIAK IZANGO DITU.

HIZKUNTZAK AUKERAN: GAZTELANIA EDO EUSKARA.

- 4 eta 7 urte bitartekoak
- 8 eta 12 urte bitartekoak

OHARRA:

Deia egiten duen pertsonak soilik familia unitate bereko haurren izenak eman ahalko ditu.

TAILERRETAN BAJA IZATEKO ARRAZOIAK:

- Behin tailerra hasita, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan (948 151 382 telefonoan 9:00etatik 14:00etara) aurretik ez jakinarazitako ez bertaratzeak haurraren baja automatikoa ekarriko du eta ez da dirua itzuliko.
- Familiaren bat matrikula egin ondoren baja izango balitz edota Udalarena ez den arrazoi batengatik Tailerrera joaten ez bada, ez zaio ordaindutako dirua itzuliko (ezinbesteko arrazoiengatik izan bada ezik, adibidez, haurraren edota gurasoen ospitalizazioa).

IKASKUNTZA FAMILIARRERAKO TAILERRA

Tailerra familientzat: "Yoga Familiartean"



Denok dakigu zer-nolako gauza onak dituen yogak, hala gorputzerako nola bururako.

Yoga familiartean egiten badugu, ongi sentituko gara eta gure seme-alabekiko batasuna sendotuko da.

Haurrek sentitzen dute zorrotz eskatzen zaiela espektatibak betetzea, hala gizarte mailan nola hezkuntzan, kirolek duten presioaz gainera; zenbaitetan, kirolak oso lehiakorrek baitira.

Hori dela eta, presiorik gabeko denbora tarte bat izatea proposatzen dugu, jolastu, dantza egin eta gozatzeko,

arnasketak eta erlaxazioak egiteko, eta eguneroko zereginetarako kontzentratzeko.

Gorputza mugituz eta arreta garatuz, Yoga familiartean lagungarria zaigu ez soilik geure seme-alaba hobeki ezagutzeko, baizik eta era berean harekin era dibertigarrian eta presarik gabe gozatzeko ere.

2010 eta 2017 artean jaiotako seme-alabak dituzten gurasoentzat (lehenetasunez).

Edukiera dela eta, tailerrera gehienez haur bat joan daiteke gurasoarekin batera.

DATAK: martxoak 15 eta 22.

ORDUTEGIA: 17:00etatik 19:00etara.

NON: Mutiloako Kultur Etxearen kanpoaldea (Eguzki plaza)

EMAILEA: PLANETA IDEA.

IZEN-EMATEA: martxoaren 1etik 7ra,

948 151 382 deituta edo rgarralda@aranguren.es helbidean.

YOGA TAILERRA EGUNGO GOMENDIOEKIN BAT EGINEN DA ETA ARAUDIAK EZARRITAKO HIGIENE ETA SEGURTASUN NEURRI GUZTIAK BETETA

BULARRA EMATEKO TAILERRA



Aranguren Ibarreko Gizarte Zerbitzuak Bularra Emateko Tailer bat antolatu du Amagintza Elkartearekin elkarlanean (edoskitzearen eta amatasunaren aldeko taldea), laguntza eta informazio eguneratua eta zientifikoa behar duten ama eta familientzat, dela bularra emateari buruz, dela seme-alaben hazkuntzarekin loturiko gaiei buruz.

Tailerrean behar diren ezagutzak eta oinarrizko tresnak azalduko zaizkie amei, zenbaitetan edoskitzearen inguruan sortzen diren arazoak gainditzeko, amek edoskitze arrakastatsua gozatu nahi dutenean.

Era berean, erabakiak hartzen lagunduko zaie emakumeei, bai eta ahalduntzen ere, erabakiak haiek berek har ditzaten, hori ona baita autoestimua indartzeko; horrela, hazkuntzan elkarri laguntzeko ama taldeak osatuko dira, hazkuntza bakardadean ez egiteko.

DATAK: martxoaren 15ean hasiko da, astelehena. Hilean saio bat.

ORDUTEGIA: 10:30-12:30.

NON: Arangurengo Kultur Etxearen kanpoaldea (Eguzki plaza).

EMAILEA: Amagintza Elkartea.

IZEN-EMATEA: martxoaren 1etik 7ra,

948 151 382 deituta edo rgarralda@aranguren.es

BULARRA EMATEKO TAILERRA EGUNGO GOMENDIOEKIN BAT EGINEN DA, ETA ARAUDIAK EZARRITAKO HIGIENE ETA SEGURTASUN NEURRI GUZTIAK BETETA

LUDOTXIKI (AZAROA-EKAINA)



Gogoratu Aranguren Ibarreko Ludotxikiko atea (haurren jolaserako egokitutako gunea) zabalik daudela oraindik ere 0 eta 3 urte bitarteko haurtxoarekin batera jolasen eta jardueren bidez denbora libre gerozko etorri nahi duten guraso guztientzat.

Ludotxikiak zehaztutako zenbait egunetan gurasoei zuzendutako jarduerak eskaintzeko begiraleen laguntza izanen du: haurrentzako yoga, haurren masajea eta kamishibai ipuinei buruzko oinarrizko ezagutzak.

Ludotxikian haurrek beti haien ardura izango duen heldu batek lagunduta egon beharko dute.

Ludotxikia Mutiloako Kultur Etxeko kanpoko aldeko arteoan dago (Eguzki plaza).

EGUNAK: astearte eta osteguna.

ORDUTEGIA: 17:00etatik 19:00etara

KUOTA: 10 €/ikasturteko, jarduera egiten den aretora bertaratutako lehen egunean jasoko da.

IZEN EMATEAK: 948 151 382 telefonora deituaz edo rgarralda@aranguren.es e-postan.

** Zerbitzua momentuko osasun egoeraren arabera garatuko da eta Osasun Agintariak ezarritako protokoloak eta edukierak beteaz.**

ADINEKOAK

60 Urtetik gorakoendako tailerra

"Internet bidez erosketa egiten ikastea eta familiarekin konektatuta egotea"

Koronabirusak eragindako egoerak agerian jarri du zeinen handia den bereziki adinekoei eragiten dien arrakala digitala.

Horra, beraz, adinekoek pairatzen duten isolamendu sozial bat eta, horrexegatik, teknologia digitala hurbildu nahi dugu haiengana, teknologia horretan moldatzen direla sentitzeko eta, gainera, gainerako familia-kideekin komunikatu ahal izateko (batez ere, behar afektibo handiko garai honetan). Horretarako, argazkiak, txatak, bideo-deiak, bideoak eta gisakoak erabiltzen erakutsiko zaie.

Bestalde, pandemia garai honetan, funtsezkoa da erosketak internet bidez egin ahal izatea, supermerkatu eta dendetako jende pilaketa saihesteko, eta horrela, adinekoen beregaintasuna eta autonomia sustatzeko; azken buruan, eguneroko bizitzako jardueretan laguntzeko tresna erabilgarriak erakutsiko zaizkie.

Tailerra, funtsean, praktikoa izanen da, eta pertsona bakoitzak bere gailua eraman beharko du saioetara (mugikorra, tableta edo ordenagailua), gailu horrekin praktikatzeko aldera.

Datak: Martxoak 17 eta 24, asteazkena.
Ordutegia: 11:00etatik 12:30era.

Non: Erretiratuen elkarteko ekitaldi gela, lehen solairua, Mutiloa plaza, 5.
Emailer: Cocokids.

IZEN-EMATEA: martxoaren 2tik 9ra, 948 151382ra deituta edo rgarralda@aranguren.es helbidean.

TAILERRAREN GARAPENA EGUNGO OSASUN-GOMENDIOEN MENDE EGONGO DA, ETA ARAUDIAREN ARABERAKO HIGIENE ETA SEGURTASUN NEURRIAK KONTUAN HARTUKO DIRA

ZERBITZU ETA BALIABIDE GIDA

KONTSUMOARI BURUZKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Laguntza eta aholkularitza ondorengo eremuetan: kontsumoa, telekomunikazioak, hornidurak, erosketa bermeak, zerbitzu eta ondasun salerosketak, ibilgailu, konponketak, turismoa, alokairuak,...

AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA

Familiako eta jendarteko harremanak hobetzeko laguntza, auto-estimua, gaitasun sozialak, estresa eta antsietatea, beldurak, egoera depresiboak, aldaketei egokitzea, elikadurarekin lotutako nahasdurak, menpekotasunak... 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendua.

LUDOTXIKIA

0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako jolasteko gunea. Beti haien erantzukizuna izango duen heldu batez lagunduta egon beharko dute.

TXALOPOTE LUDOTEKA

4 eta 12 urte bitarteko haurrentzako jolasteko gunea, formazioa duten hezitzaileek antolatutako jolas eta jardueren bidez beren aisialdia alaitu nahi badute.

MATERIAL ORTOPROTESIKOA MAILEGATZEKO ZERBITZUA

Denbora batez zenbait material mailegatzeko zerbitzua: aulki gurgildunak, dutxarako aulkiak, makuluak, bastoiak, etab.

LIBURUAK MAILEGUAN HARTZEKO GURASOENTZAKO ZERBITZUA

Seme-alaben eguneroko hezkuntza erraztu edo lagundu dezaketen argitalpenen mailegua.

JANTOKI OSASUNGARRIA

Autonomoak diren edo mendekotasun ertaina duten 60 urtetik gorako pertsonen , beren behar dietetikoen arabera, modu osasuntsu eta orekatuan jan ahal izateko zerbitzua, eta, aldi berean, konpainian egin dezaketela sustatzeko. Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen menua etxean jasotzeko aukera dute.

JUBILOTEKA

Mendekotasunik ez duten edo mendekotasun ertaina duten 60 urtetik gorako pertsonentzako zerbitzua. Oroimen eta psikomotrizitate tailerrak eskaintzen ditu, nariadura fisiko eta psikikoari aurrea hartzeko.

PODOLOGIA ZERBITZUA

Podologia Zerbitzuak oinen zaintza du helburu, beti ere sendaketa ez kirurgikoen bidez eta oinarrizko podologiako ebaketa eta zaintzak erabiliz. Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden 60 urtetik gorako pertsonentzako da. Salbuespeneko egoerentzako ere, etxeko zerbitzua eskaintzen da.

ELIKAGAIEN BANKUA

Egoera ekonomiko eta sozial kalteberan dauden familiei oinarrizko produktuak banatzeko. Baliabide hori garatzeko, ezinbestekoa da boluntarioen lana, beren denborarekin elikagaiak antolatu, bildu eta banatzen laguntzen baitute.

LAN POLTSA

Langabezian edo/eta lan hobekuntzan dauden erroldatuentzako zerbitzua. Bere eginkizunen artean daude curriculum biltzea eta, ondorioz, lan poltsaren datu-basean inskribatzea eta enpresek eta partikularrek egiten dituzten lan eskaintzak jasotzea.

ESKAERAREN ARABERAKO TAXIA

Garraio erregularrik ez duten Ibarreko udalerrietako bizilagunak Mutiloako zerbitzuetara eta hiri garraioko lineetara hurbiltzeko garraio zerbitzua.

FAMILIA ETA HAURTZAROA

- Tailer monografikoak, gurasoen topaleku gisa, seme-alabak hezteko lan garrantzitsuari modu sinpleagoan aurre egiteko gogoeta egin eta trebetasunak ikasi ahal izateko. Familiei laguntzeko, haurtzaindegi-zerbitzua dago.
- Haur eta nerabeentzako programak: ikastetxeekin lankidetzan, hainbat programa egiten dira, ohitura osasungarriak sustatzeko eta eskolako eta familiako bizikidetzak egokirako jarrerak sustatzeko.

KANPALDIAK ETA HIRI TAILERRAK

Aranguren Ibarreko gizon eta emakumeen familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzeko eta 4 eta 12 urte bitarteko haurren aisialdirako baliabideak:

- Udako hiri-kanpaldia
- Gabonetako tailerra
- Inauterietako tailerra
- Aste Santuko tailerra

EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA

Behar juridikoengatik eta bereizkeriagatik aholkua eta orientazioa eskatzen duten erroldatuei ematen zaien zerbitzua, bereziki, tratu txarrak edota sexu-erasoak gertatzen direnean.

IN.TE.RE.SA PLANA (ENPLEGU PLANA)

- Enplegua sustatzeko kontrataziorako diru-laguntzak
- Prestakuntza pertsonal, sozial eta laboralerako diru-laguntzak
- Auto-enplegua sustatzeko diru-laguntzak (2009/12/21eko 156. NAO)

HELDUENTZAKO OINARRIZKO FORMAZIOA

Irakurketa edota idazketa finkatu eta oinarrizko ezagutzak maila lortu behar duten pertsonentzako prestakuntza.